

Euskal AEn heriotzak % 4,8 gutxitu ziren 2021ean

COVID-19ak eragindako heriotzak 1.682 izan ziren 2021ean, aurreko urtean baino % 45,7 gutxiago

2021ean 23.073 pertsona hil ziren Euskal AEn, hau da, 2020an baino % 4,8 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Lurraldeka, jaitsierarik nabarmenena Araban izan zen (% 9,1), ondoren Bizkaian (% 5,7) eta azkenik Gipuzkoan (% 1,6).

Heriotzen % 7,3 COVID-19ak eragin zituen 2021ean, eta guztira 1.682 heriotza izan ziren, 2020an baino % 45,7 gutxiago.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adina. 2020-2021

	2020	2021	Gehikuntza (%)
Euskal AE	24.247	23.073	-4,8
Bizileku-lurralde historikoak			
Araba/Álava	3.266	2.970	-9,1
Bizkaia	13.243	12.486	-5,7
Gipuzkoa	7.738	7.617	-1,6
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)			
Barakaldo	1.272	1.183	-7,0
Basauri	552	478	-13,4
Bilbao	4.512	4.044	-10,4
Donostia / San Sebastian	2.174	2.067	-4,9
Getxo	791	780	-1,4
Irun	642	658	2,5
Portugalete	584	585	0,2
Santurtzi	549	533	-2,9
Vitoria-Gasteiz	2.439	2.182	-10,5
Sexua			
Gizon			
Emakumea	12.056	11.565	-4,1
	12.191	11.508	-5,6
Adina			
40 urtetik beherakoak	247	223	-9,7
40 urtetik 59ra	1.544	1.556	0,8
60 urtetik 79ra	6.693	6.448	-3,7
80 urte edo gehiago	15.763	14.846	-5,8

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Hildakoen batez besteko adina 81 urte izan zen

2021eko heriotzen guztizkoa kontuan hartuta, 11.565 gizon eta 11.508 emakume hil ziren, eta 2021ean hildako pertsonen batez besteko adina 81 urtekoa izan zen; hamar urte lehenago, 2011n, 78,2 urtekoa izan zen, hau da, batez besteko adinak 2,8 urte egin du gora azken hamarkadan.

Gizonak batez beste 78 urterekin hil ziren eta emakumeak 84 urterekin 2021ean; 2011n, berriz, batez bestekoak 74,8 eta 81,8 urte izan ziren, hurrenez hurren. Ondorioz, azkeneko 10 urteotan, gizonen batez besteko heriotza-adinak gora egin du 3,2 urte, eta emakumeenak 2,2 urte.

Haurren heriotza-tasari dagokionez, urte bat baino gutxiagoko 35 haur hil ziren Euskal AEn. Jaioberrien heriotza-tasak, bizitzako lehen 28 egunei dagokienez, 22 heriotza erregistratu zituen; horietako 3 lehen 24 orduetan hil ziren, eta beste 13 lehen astean. Urtebetetik beherakoen artean, mutilen heriotzak guztizkoaren % 60 izan ziren.

2021ean 100 urte edo gehiago zituzten (1921ean edo lehenago jaioak) 421 pertsona hil ziren, eta horien artean % 83,1 emakumeak ziren. Ehun urtetik gorako 12 pertsona gehiago hil ziren, 2020an jasotako kopuruarekin alderatuta.

Heriotzen % 27,1 tumoreek eragin zuten

2021ean izandako heriotzen % 27,1 (6.243 heriotza) tumoreek eragin zuten; ondoren, heriotzen % 25,6 (5.915 heriotza) zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragin zuten, eta hirugarrenik, heriotzen % 7,6 (1.763 heriotza) buru-nahasmenduek eta portaera-nahasmenduek.

Heriotzen kausek ezberdinak izaten jarraitzen dute sexuaren arabera; izan ere, gizonen artean, tumoreak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, berriz, kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren eta bigarren lekuan tumoreak. Gainera, aipatzekoa da buru-nahasmenduek eta portaera-nahasmenduek eragindako heriotzen artean emakumeen ehunekoa handiagoa dela, kanpoko kausen kasuan gertatzen ez den bezala, non gizonen ehunekoa handiagoa den.

Halaber, heriotzaren arrazoia aldatu egiten da adinaren arabera. Urtebetetik beherakoetan, heriotza ohikoenak jaiotza-inguruko gaixotasunek eta sortzetiko malformazioek eragin zituzten; 1 eta 39 urte bitartekoetan, heriotza-kausa nagusiak kanpo-kausak izan ziren, horien artean istripuak eta suizidioak; 40 eta 79 urte bitartekoetan, tumoreak izan ziren lehenengo heriotza-kausa eta, 80 urtetik aurrera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak.

Euskal AEko heriotzak, horren arrazoiaren eta adinaren arabera. 2021

	Guztira	1 urtetik beherakoak	1 - 19 urte	20 - 39 urte	40 urtetik 59ra	60 urtetik 79ra	80 urte edo gehiago
Guztira	23.073	35	44	144	1.556	6.448	14.846
I.Ciertas Gaixotasun infekzioso eta parasitario batzuk	309	-	-	3	22	72	212
II.Neoplasiak	6.243	2	12	39	718	2.899	2.573
III.Enfermedades Odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak eta immunitate-mekanismoari dagozkion trastorno batzuk	117	1	2	-	3	18	93
IV.Enfermedades Gaixotasun endokino, nutrizional eta metabolikoak	710	1	2	1	30	157	519
V.Trastornos Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	1.763	-	1	-	15	197	1.550
VI.Enfermedades Nerbio-sistemako gaixotasunak	1.409	1	7	8	70	347	976
IX.Enfermedades Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	5.915	1	2	11	264	1.240	4.397
X.Enfermedades Arnas sistemako gaixotasunak	1.348	3	-	1	43	291	1.010
XI.Enfermedades Txegoste-sistemako gaixotasunak	1.078	-	-	5	98	271	704
XII.Enfermedades Larruazaleko eta azalpeko ehuneko gaixotasunak	121	-	-	-	1	18	102
XIII.Enfermedades Sistema muskulo-eskeletikoaren eta ehun konektiboaren gaixotasunak	297	-	-	-	3	28	266
XIV.Sistema genito-urinarioko gaixotasunak	723	-	-	-	10	111	602
Haurduntza, erditzea eta erdiberriaroa	-	-	-	-	-	-	-
XVI.Jaiotzinguruko denboraldian sortutako egoera jakin batzuk	17	16	1	-	-	-	-
XVII.Sortzetiko malformazioak, deformazioak eta kromosoma-anormalitateak	53	8	5	6	16	12	6
XVIII.Sintomak, zeinuak eta emaitza kliniko eta laborategiko anormalak	590	1	-	1	12	50	526
XX.Hilkortasunaren kanpo-kausak	698	1	12	63	169	172	281
COVID-19 baieztatuta	1.650	-	-	6	81	559	1.004
COVID-19 probablea	32	-	-	-	1	6	25

Data 2022ko Uztailaren 26a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

COVID-19aren birusak heriotzen % 7,3 eragin zituen

2021ean 1.682 heriotza izan ziren COVID-19aren ondorioz, guztizkoaren % 7,3. Heriotza horiek bi taldetan sailkatzen dira: COVID-19ak eragindako heriotzak, analisi espezifikoarekin baieztatuta (1.650 heriotza), edo ustez COVID-19ak eragindako heriotzak, analisi bidez baieztatu gabeko kasuak, baina kasu horietan COVID-19a da heriotzaren kausa nagusia parte medikoan (32 heriotza). Arrazoi horrek eragindako heriotzak 2020an baino % 45,7 gutxiago izan dira.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adinaren arabera, COVID-19rekin lotutako heriotza-kausei jarraiki. 2021

	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE	23.073	1.682	1.650	32
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	2.970	198	192	6
Bizkaia	12.486	942	921	21
Gipuzkoa	7.617	542	537	5
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	1.183	61	60	1
Basauri	478	22	22	0
Bilbao	4.044	379	366	13
Donostia / San Sebastian	2.067	129	128	1
Getxo	780	73	71	2
Irun	658	49	49	0
Portugalete	585	29	28	1
Santurtzi	533	37	37	0
Vitoria-Gasteiz	2.182	154	149	5
Sexua				
Gizon				
Emakumea	11.565	925	910	15
	11.508	757	740	17
Adina				
40 urtetik beherakoak	223	6	6	0
40 urtetik 59ra	1.556	82	81	1
60 urtetik 79ra	6.448	565	559	6
80 urte edo gehiago	14.846	1.029	1.004	25


Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Lurraldeka, Bizkaia izan zen heriotza gehien izan zituen lurraldea (942), ondoren Gipuzkoa (542) eta azkenik Araba (198). Heriotza horiek ehunekotan kontuan hartuta, Bizkaian COVID-19aren ondoriozko heriotzen ehunekoa guztizkoaren % 7,5 da, Gipuzkoan % 7,1 eta Araban % 6,7. Hiriburuei dagokienez, Bilbo nabarmentzen da, 379 heriotza eragin baititu COVID-19ak (% 9,4), Gasteizen 154 (% 7,1) eta Donostian 129 (% 6,2). Getxo eta Barakaldo ere nabarmentzen dira, 73 (% 9,4) eta 61 (% 5,2) heriotzarekin, hurrenez hurren.

COVID-19agatik hil ziren gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izan zen, 925 eta 757, hurrenez hurren. Adinari dagokionez, 80 urtetik gorakoen artean izan da COVID-19ak eragindako heriotzen % 61,2.

Hilabeteka, urtarrilean izan ziren heriotza gehien COVID-19aren ondorioz (366), eta ondoren otsailean (324). Horretaz gain, arrazoi horren ondoriozko heriotzen kopuruak gora egin zuen apirilean, abuztuan eta abenduan.

Gainera, beste 160 heriotza izan ziren, zeinetan COVID-19a heriotza-kausa ziurtatuen artean egon zen, baina ez zen kausa nagusia izan.



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurraldeetan

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen, jaiotzak baino 8.816 heriotza gehiago izan baitziren. Lurraldeka, saldo negatiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Bizkaian 5.529 pertsona, Gipuzkoan 2.685 eta Araban 602. Aurreko urtearekin alderatuta, saldo negatibo hori % 7,3 txikiagoa izan zen COVID-19aren ondoriozko heriotzen murrizketaren ondorioz.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62